



2016 URTEKO TXOSTENA

 **elkarbanatuz**

Bulegoak

Madariaga etorbidea 69
48014 Bilbao

Madalena Jauregiberri pasealekua, 2
851 P.K.
20080 Donostia San Sebastián

Tel.: 944 757 643
Faxa: 944 750 151
info@elkarbanatuz.org
www.elkarbanatuz.org

Zentroak

BAIKABA

Madariaga etorbidea 69
Beheko solairua
48014 Bilbao
Tel.: 944 474 499
Faxa: 944 750 151
baikaba@elkarbanatuz.org

HAZTEN

Madariaga etorbidea 81,
atzealdea
[Sarrera, Morgan kalea]
Tel.: 946 426 447
Faxa: 944 750 151
hazten@elkarbanatuz.org

HIRANKA

Blas de Otero 39
[Sarrera, Arenazako leizea
kalea] 48014 Bilbao
Tel.: 944 764 136
hiranka@elkarbanatuz.org

Laguntza-baliabideak

OINEZ SAREA

Gerizpe [Getxo]
Barakaldo
Bidean [Bilbao]
Ganeko [Bilbao]

ONDOAN

Bilbao

BIDANKA

Ollargan
Galdakao
Santurtzi



Aurkibidea

Eskerrak	2
Aurkezpena	3
Nor Gara	4 y 5
Egoitzetako Esku-Hartzearen Arloa	6 y 7
Lan- eta Lanbide-Heziketaren Arloa	8 y 9
Hautzaroaren, Familiaren eta Oinarrizko Laguntzaren Arloa	10 y 11
Nazioarteko Lankidetza	12
Gizarte-Partaidetza	13
Administrazioaren eta Jarraipen Ekonomikoaren Arloa	14 y 15
Urteko Kontuak	16 y 17
Lankidetza-Sareak	18
Komunikatzeko Bideak	19
Izan Laguntzaile	20

Eskerrak

Esker ona adierazi nahi diegu 2016. urtean lagundu diguten erakunde publiko eta pribatu guztiei:

LA SALLE SAREA



La Salleko Gizarte eta
Hezkuntza Ekintzen Sarea



Kristau Eskoletako Anaiak - FSC

ERAKUNDE PUBLIKOAK



Bilboko Udala Berdintasun,
Gizarte Ekintza Saila



Eusko Jaurlaritza:
Enplegu eta Gizarte
Politiketako Saila Gizarte
Politiketako Sailburuordetza



Eusko Jaurlaritza:
Enplegu eta Gizarte
Politiketako Saila Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua



Hezkuntza, Kultura
eta Kirola Ministerioa


ENTITATE PRIBATUAK



Banco de Alimentos de Bizkaia
Bizkaiko Elikagaien Bankua



Fundación Antonio
Menchaca de la Bodega



Carmen Gandarias
Fundazioa



Grupo Norte Fundazioa



María Francisca de Roviralta Fundazioa



Victor Tapia eta
Dolores Sainz Fundazioa



"La Caixa" Gizarte Ekintza



Caixa Proinfancia
Programa



Incorpora Prestakuntza Guneak

Orobat adierazi nahi diegu esker ona lagundu diguten bazkide, kolaboratzaile eta boluntario guztiei.

2016. urtea. Elkarbanatuz elkarteak 18 urte beteko ditu. Jada "adinez nagusiak" gara; oraindik gaztea da gure elkarte, baina ibilbide polita egin dugu, eta heldutasunera iritsi gara. Hala erakusten dute gure elkartearen plan estrategikoek. III. plan estrategikoa, 2013-2016 Plan Estrategikoa, betetze-maila aipagarriaz amaitu dugu, eta dagoeneko, egina dugu gure IV. plan estrategikoa ere, 2017-2020 Plan Estrategikoa, 2018. urtean gure 20. urteurrena ospatzeko sarreratzat baliatuko duguna.

2016ko urteko txosten honen bidez, gure urteko jardueraren laburpen bat egin nahi dizuegu, bizi garen gizartea eraikitzen eta aldatzen egindako lan guztia datuetan islatuz. Lan hori, hain zuzen, gure gizarte-masaren laguntzari esker egiten dugu, elkartearen bazkide eta laguntzaile zaretenoi esker, eta, batez ere, profesionalen jardunari esker. Horren adierazgarri, urtero-urtero, hainbat erakunde publikoaren eta pribaturen aitortza jasotzen dugu, eta haiekin lankidetzan aritzen gara. Gizarteak ezarri digun betekizuna da gure jarduna. Beraz, gizarteari ere eskerrak eman behar dizkiogu.

Urte zaila izan da egoitzetako esku-hartzearen arloan, gure inguruan izan diren aldaketek, zerbitzu-antolaketa berriek, eta etengabe aldatuz doazen errealitateak eta lege-esparruak baldintzatu baitute gure jarduna. Azkenean, lortu dugu egoerara egokitzea, baina, zailtasunik gabe, zailtasunak izan ditugu.

Gure xedea da gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen laguntzea duintasuna, autonomia, enplegarritasuna eta gizartearen aitortza lortzeko egiten duten bidean, eta ahalegin horretan borrokatuz jarraitu dugu, pertsona horiei prestakuntza-ekintzak eta gizarte- eta lan-orientazioa emateko, bestela ere zaila den lan-merkatuan errazago sar daitezen. Eta emaitzak lortzen ari gara, elkartearen lan eta lanbide-heziketaren arloaren eskutik.

Oraina bizi dugu, baina etorkizunari begira gaude; horregatik, haurren, nerabeen eta haien familien egoera hobetzea xede duten jarduerak garatuz jarraitzen dugu haurtzararen, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloan. Haiek dira etorkizunaren hazia, haien gainean eraikiko da etorkizuneko gizartea, bai gure inguru hurbilean bai gure mugetatik kanpo, eta horregatik, babesa ematen diegu munduko beste hainbat lekutan egoera bidegabeak aldatzeko borrokan ari direnei.

Bizi garen gizarteko arazoak agerian utzi nahi ditugu, gizarte-salaketen bitartez, eta herritarrak kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi ditugu haiekin izaten ditugun eguneroko hartu-emanak baliatuz: kide garen hirugarren sektoreko sareen bitartez, La Salleko Hezkuntza Ekintzen Sarean parte hartuz, gure jardunaldiak antolatuz, boluntariora –hain baliotsua dena– baliatuz, edo sare sozial gero eta arinagoetan parte hartuz. Borrokan ari gara gizarte justuagoa eta kohesio handiagokoa eraikitzeko, eta horretarako, parte-hartzea eta gizarte-eragina ditugu oinarri. Elkartuz eta bat eginez, urrunago iristen gara, eta ahalmen handiagoa dugu.

Urteko datuen arabera, zuzenean 1.300 pertsonarekin egin dugu lan, gure atetik sartu diren hainbat eta hainbat lagunekin. Ate hori zabalik dago une oro, beste ate batzuk irekitzen laguntzeko... Baina beti, kalitatea eta eraginkortasuna bermatuz, arduraz jokatzuz, eta gizon-emakume guztien berdintasuna sustatuz.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen laguntza, irudimena, ametsak, ahalegina eta, funtsean, bizia ematen duzuen guztioi; funtsean, proiektu eraldatzaile honen alde den-dena ematen duzuenoi, gizarte hau geroz eta justuagoa izatea lortzen ari zaretenoi.

Zuzendaritza Batzordea

Nor gara

Elkarbanatuz irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta La Salleko Ekintzen Sareko partaide da. Sare horrek, batez ere, hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren arloan egiten du lan.

Onura publikoko izendapena jaso du, eta partaidetza eta gizarte-aldaketa bultzatzen ditu.

Gizarte-oinarri sendoa dugu; izan ere, 80 bazkide eta laguntzaile inguru ditugu.

Gaur egunean, 88 lagunek lan egiten dute gurekin: 35 lagun, talde profesionalekoak dira (29 emakume eta 6 gizon), eta 53, boluntarioak (27 emakume eta 26 gizon).



2016. urtean, honela osatu da zuzendaritza-batzordea eta zuzendaritza-taldea:



2016. urtean,

1300 lagunek parte hartu dute gure programetan.

450 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute zuzeneko laguntza-prozesuetan.

700 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute sentsibilizazio-ekintzetan.

150 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute arreta-prozesuetan Nazioarteko Lankidetzaren programen bidez.

Gainera, 600 lagunek baino gehiagok jarraitzen digute sare sozialen bidez.

2017-2020

Plan estrategikoa



2017-2020 Plan Estrategikoa lantzen aritu gara urtebetean.

Horretarako, 90 kide aritu gara elkarlanean; tartean, bazkideak, langileak eta gure proiektuetan parte hartzen dutenak.

Zuzendaritza Batzordeak eta Zuzendartiza Taldeak bideratu dute gogoeta-prozesua, eta La Salleko Ekintzen Sareko Animazio Taldearen laguntza jaso dugu.

Jarraian, 2017-2020 urteetarako plan estrategikoa laburbilduko dugu:

MISIOA

Elkarbanatuz elkarteak, La Salleren hezkuntza-misioaren bitartez, egoera ahulean dauden pertsonen gizarte-heziketako laguntza eskaintzen die, eta lanean ari da gizarte justuago eta kohesionatuago baten alde, zuzenean parte hartuz eta gizartean eraginez.

IKUSPEGIA

Gizartean eta La Salleren Misioan erreferentziazko erakundea izatea, gizartea aldatzeko eta egoera ahulean dauden pertsonekin gizarte- eta hezkuntza-arloko lanari dagokionez.

BALIOAK

- Identitate lasalatarra
- Elkartasuna
- Senidetasuna
- Lankidetzatza
- Eraginkortasuna
- Erantzunkidetasuna
- Berrikuntza
- Gardentasuna



ERRONKA ESTRATEGIKOAK

1. erronka:

gure lanaren indarra erakundearen programetan, zentroetan eta zerbitzuetan parte hartzen duten eta gure laguntza jasotzen duten pertsonen autonomia sustatzen jartzea.

2. erronka:

esku-hartzeko ditugun baliabideak eta metodoak sendotzea eta gure laguntza jasotzen dutenen beharretara egokitzea.

3. erronka:


gizarte zuzenago eta kohesionatu baten alde lan egitea, elkarlanaren eta gizarte-eraginaren bidez, eta herritartasun globala bultzatuz.

4. erronka:

erakundearen misioarekin bat datorren oinarri sozial baten parte-hartzea, gaitasunak eta garapena sustatzea.

5. erronka:

iraunkortasunean oinarritutako elkarte bat finakatzea, kudeaketa etiko, arduratsu eta gardenaren bitartez.



Egoitzetako Esku-Hartzearen Arloa

Egoitzetako esku-hartzearen arloa bi programak osatzen dute; ezaugarri ezberdinak eta hezkuntza-arloko laguntza jasotzeko premia-maila ezberdinak dituzten pertsonentzat dira programa horiek: Emantzipaziorako egoitza-programa eta Gizarteratzeko egoitza-programa. Erabiltzaileen bizi-baldintzetan etengabeko hobekuntza lortzea da bi programen helburua.

Hona hemen 2016. urtearen ezaugarrietako bat: programak Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretura egokitu ditugu, etengabeko egokitzapenerako programetan, baliabideetan eta ekintzetan hobekuntzak eginez eta, hala, horiek denak erabiltzaileen beharrian aldatzeko eta arazo espezifikoetara moldatuz.



2016eko Eraitza Nagusiak



Arlo honek 39 egoitza-plaza ditu: 27 emantzipazioan laguntzeko dira, eta 12, berriz, gizarteratzen laguntzeko.



Ondoan deritzen programan, aurrera egin dugu portaera konplexua dutenen laguntza psikologikoan eta hezkuntzakoan, haien autonomia eta egonkortasun emozionala sustatzeko helburuarekin.

2016an 39 laguni lagundu diegu egoitza-baliabideen sarean.

2016an egoitza-baliabideen sarean lagundu zaien 39 pertsonetatik 34 pertsona 18 eta 29 urte artekoak izan dira.

Oinez eta Bidanka egoitza-baliabideetan 740 bisita izan dira Eguneroko Bizitzako Oinarritzko Jardueretako-EBOJ.



15 gaztek parte hartu dute proiektu berritzaile hauetan: "Breakers: Egin ezazu mundu berri bat" heziketa-proiektuan, FEPA proiektuak eta tutoretzapeko etxeak dituzten erakundearen federazioarekin elkarlanean antolatua, eta "Gazteak: Europako gizarte-eraldaketaren eragile" EAPN sareko parte-hartze proiektuan.

92 jarduera egin dira jakintza areagotzeko eta komunitatean parte-hartze autonomoa bultzatzeko.

Beren prozesua burutu dutenetatik %95ek helburua erabat edota neurri batean beteta burutu dute.



Ondoan – Gazteak emantzipatzeko egoitza-programa

Ondoan intentsitate handiko egoitza-baliabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren Helduz proiektuaren barruan dago, eta 7 plaza ditu.

Emantzipatzen hasi diren gazteen beharrei erabat eta eraginkor erantzutea da programaren helburua, gizarte- eta hezkuntza-arreta eskainiz, bai bakarka bai taldean, egoitza-espazio babesgarri batean.

2016. urtean aldaketa handiak egon dira programan. Lehen, programa neskentzat bakarrik zen, eta orain mistoa da. Hori dela eta, baliabidearen eguneroko dinamikak moldatu behar izan dira, baita erabiltzaileen prozesuetan egiten diren bakarkako eta taldekako esku-hartzeak ere.



Bidanka – Gizarteratzeko egoitza-programa

Egoitza-baliabideen sare bat da, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan lantzen da; 12 plaza ditu, 3 etxebizitzatan banatuta.

Gizarteratze-prozesuan bakarkako zein taldekako laguntza eskaintzen dugu.

2016. urtean, aurrera egin dugu hezkuntza-programaren sistemazioan, eta, hala, ahultasun-egoeran dauden gizarte-beharrei erantzun diegu eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak eta taldekako tailerrak egokitu ditugu.



Oinez – Gazteak emantzipatzeko egoitza-programa

Gazteak emantzipatzeko egoitza-baliabideen sarea, Oinez deritzona, Bizkaiko Foru Aldundiaren Mundutik Mundura programaren barruan dago, eta 20 plaza ditu, 4 etxebizitzatan banatuta.

Programaren helburua gazteei emantzipatzen laguntzea da: gazteek beraien parte hartzen dute beren heldutasun- eta autonomia-prozesuan.

2016an, gazteen parte-hartze komunitarioa bultzatu dugu, herritarren parte-hartze aktiboa eta kulturen arteko komunikazioa sustatzen duten proiektuak babestuz, hala nola "Gazteak: Europako gizarte-aldaketaren eragile" EAPNren proiektua, non gazteek parte hartzen duten, ahalduntze pertsonal eta taldekakoaren estrategia modura.



Lan- eta Lanbide-Heziketaren Arloa

Egoera ahulean dauden eta gure laguntza jasotzen dutenen autonomia eta enplegarritasuna hobetzea da gure helburua; horretarako, Elkarbanatuz elkarteko gainerako arloekin koordinaturik eta lurraldeko beste erakunde batzuekin sare bat osaturik lan egiten dugu.

Halaber, pertsona horien parte-hartzea bultzatzen dugu, eta, hala, gure esku-hartzeak diseinatzeko, lantzen eta ebaluatzen dituzte, bakarka nahiz taldeka. Hori dela eta, haien beharretara hobeto egokitutako eta, ondorioz, emaitza hobeak izango dituzten bide integralak lantzen ditugu.



2016eko Emaitza Nagusiak

54 lan-eskaintza kudeatu ditugu, eta, horien barruan, 49 kontratu lortu dira; hala, bada, 2015ean baino %16 laneratze gehiago lortu dira.



47 pertsonak egin dituzte praktikak enpreetan.

Aurkibiden, Bitartekaritza eta Gizarte eta Lan Orientaziorako Zerbitzuan, 148 pertsonari lagundu diegu.

Modu aktiboan parte hartu dugu Prestakuntzako Espezialitate Berrien diseinuan, Prestakuntzako Espezialitateen Euskal Katalogoko I. mailako Profesionaltasun Ziurtagiriak lortzeari dagozkionak.



Zentroaren erabiltzaileekin genero-ikuspegia lantzeko saioak martxan jarri dira: 17 saio makumeentzako ahalduentzako taldearekin, eta beste 17 saio gizonentzako maskulinitasunen taldearekin.

Hazten zentroan, dibertsifikatu egin ditugu lanbide-espezialitateak eta enplegarritasuna hobetzeko espezialitateak; hori dela eta, %39 gehitu ditugu prestakuntza-orduak.

Hirankan, beren prozesua burutu dutenetatik %81,25ek lortu dituzte, erabat edo neurri batean, aurreikusitako helburuak.

108 lagunek hartu dute parte Hazten zentroan emandako prestakuntzetan.





Hiranka – Gizarteratze Zentroaz

Hiranka gizarteratze-zentroa eguneko zentro bat da; Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera lan egiten du, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan bazterketa-egoeran dauden helduei laguntzen die.

Gure zentroaren helburua, ematen duen zerbitzuaren bidez, bertara egunero etortzen diren pertsonak bizitzako arlo guztietan era autonomoan moldatzea eta gizarteratzea da.

Zentroko esku-hartze profesionala heziketa-harremanean oinarritzen da; hala, bakarkako laguntzaren eta bestelako hainbat sostenguren bidez, pertsonengan aldaketak eragiten dituzten eta gizarte-zailtasuneko egoerak sortzen eta iraunarazten duten faktoreak gutxitzen dituzten esku-hartze integralak bidera daitezke.



Hazten – Lanerako Prestakuntza Zentroa

Zentro honetan, batez ere, kontuan hartzen dira tokiko ekonomian nabarmentzen hasiak diren sektoreak; adibidez, ostalaritza eta turismoa. Prestakuntza praktikoa eskaintzen dugu, pertsonen enplegarritasuna areagotzeko. Espezialitate bakoitzeko gai teknikoek gain, lanpostu bat lortzeko eta bertan irauteko oinarritzakoak diren zeharkako zenbait gaitasun ere lantzen dira ikasleekin.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzari esker eta La Caixa Gizarte Ekintzaren Incorpora Prestakuntza Gunearekin batera, prestakuntza-jardueretan parte hartzen dutenei gurekin lan egiten duten enpresetan praktika ez-laboralak egiteko aukera eskaintzen diegu. Praktika horiek enpresetako bertako langile teknikoek gidatzen dituzte, eta, hala, ikasleek ikasitakoa praktikan jarri, gehiago ikasi eta esperientzia hartzen dute.



Aurkibide - Gizarte- eta lan-orientabiderako bitartekaritza-zerbitzua

Aurkibide zerbitzuan lan munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonari laguntzen diegu. La Caixa Gizarte Ekintzaren laguntzari esker, pertsona horiei enplegarritasuna hobetzen laguntzen diegu. Horretarako, haietako bakoitzarekin bide espezifikoa bat lantzen dugu, ikusiz zer lan-eremu indartu behar diren eta jomuga zehatzak ezarri, pausoz pauso betetzen joan daitezkeen, harik eta azken helburua bete arte, hau da, lan-munduan sartu arte.

Programan parte hartzen dutenekin egiten den lan sakonari esker, bakarkako eta taldekako orientabide eta tutoretzen bidez, jakin daiteke bai lan-arloan bai arlo pertsonalean bakoitzaren gaitasunak eta trebetasunak zein diren; horrela, hautaketa-prozesuetan eta era aktiboan lana bilatzeko orduan, bakoitzaren potentzialitateak eta ahalmenak nabarmenduko dira.

Enpresa-ehunarekin daukagun harreman estua dela eta, harreman hori landu egiten baitugu bisiten, lankidetzaren eta ikasleen praktiken bidez, enpresetan gaur egun eta etorkizunean zer behar izango diren jakin dezakegu. Horrenbestez, behar horiei erantzun diezaikegu nahi duten profilerako hautagai egoki-egokiak aurkezturik.



Hautzaroaren, Familiaren eta Oinarrizko Laguntzaren Arloa

Garapen pertsonal eta familiarerako zerbitzuak eskaintzen ditugu; eskubideen ikuspegian oinarriturik, aukeraberdintasuna sustatzen dugu zerbitzu horien bidez. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeen inguruan, hainbat eta hainbat jardura egiten dira haurren, nerabeen eta haien familien egoera hobetzeko. Programa osagarrien bidez, gaitasunen garapena, parte-hartzea eta gizarte- eta hezkuntza-jardueretarako prestasuna bultzatzen dugu.

Komunikazio-jarduerak egiten ditugu, hala nola lantegiak eta jardunaldiak, eta sare sozialetan presente gaude, gizarte-errealitateari buruz gogoeta egiteko, kontzientzia zabaltzeko eta salatzeke, baita egoera bidegabeei eta horiek borrokatzeke dauden gizarte-ekinbideei buruzko informazioa zabaltzeko ere.

Munduko beste toki batzuetako injustizia-egoeren kontrako borroka babesten dugu, haurren eta gazteen babeserako programetan lan eginez.



2016eko Emaita Nagusiak

56 familiatako 88 haur eta gaztek (44 neska eta 44 mutil) eskola-laguntzako eta aisialdiko jardueretan parte hartu dute, baita gizarteratze-prozesuetan ere Tangerko eskolan.

55 neska-mutil adingabe ikasketa lagunduen taldeetan.



811 erabiltzaileen jarraipena egin dugu (510 gizon eta 301 emakume), gizarte- eta administrazio-arloko gaiei buruz informatzeko, orientatzeko eta laguntzeko.

57 neska-mutil adingabe aisialdiko jardueretan urtean zehar.



29 gaztek (15 mutiko eta 14 neska) zerbitzu solidarioa egin dute Baikaba zentroan.

404 adingabek sentibilizazio-jardueretan parte hartu dute.



53 boluntario.

56 familiak parte hartu dute familia-plangintzako eta oinarrizko informatikako estakuntzetan.

73 adingabe (37 mutiko eta 36 neskato) 9 astez hiri-kolonietan, Aste Santuan, udan eta Eguberrietan antolatuak.

Baikaba – Haurrentzako eta familientzako gizarte- eta hezkuntza-zentroa

Haurren eta nerabeen heziketan laguntzen dugu, hezkuntzako eta familia-babeseko programen bidez. Urtebeteko bakarkako plangintza-batean oinarriturik, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzen dugu, bakarka nahiz taldeka. Ikasketa lagunduko programetan, agenda, denbora eta lanak kudeatzen ikasten dute, arlo akademikoan hobetzeko helburuarekin.

Aisialdi eta denbora libreko jarduerak programatu eta sustagarrietan parte hartzen dute, eta, hala, jolasaren bidez, ondo pasatu eta ikasi egiten dute. Jarduera horiek astero antolatzen dira, eskola-orduetatik kanpo, baita oporraldietan ere, hiri-kolonietan.

Familien garapena eta ongizatea sustatzeko heziketa-lantegietan parte hartzen dute. Lantegi horien helburua prebentzioa eta gurasotasun positiboa bultzatzea da. Arreta psikoterapeutiko pertsonala eta familiarra ere eskaintzen da, familiarren barruan hurreman osasungarriak izaten laguntzeko.

2016an, geure burua prestatzen jarraitu dugu, genero-ikuspuntua eta kulturartekoa izango duten jarduerak antolatzeko helburuarekin. Halaber, psikodramaren bidez, nerabeen kultura-identitatearen garapenean eragina duten alderdiak landu ditugu.

Hori dena honako erakunde hauen laguntzarekin egin dugu: La Caixa Gizarte Ekintza, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Victor Tapia fundazioa, Gandarias fundazioa, eta, halaber, La Salleren Gizarte eta Hezkuntza Ekin-tzen Koordinakundearen eta Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioaren arteko lankidetzarekin.



Harrerarako eta gizarte- eta administrazio- jarraipenerako zerbitzua

Elkartearen harrera-zerbitzuaren helburua gure zentroetara iristen direnei harrera egitea eta orientatzea da. Gizarte-langileen taldeak erabiltzailearen diagnostiko integrala egiten du, eta hark elkartearen zentroetan, programetan edota zerbitzuetan duen parte-hartzea bideratzen du. Halaber, erabiltzaileen gizarte- eta administrazio-arloko jarraipena egiten du, eta hainbat eginbidetan informatzen eta laguntzen die; adibidez, identifikazio-dokumentuak, osasun-txartela, errolda, gizarte-laguntzak eta justizia-zerbitzua doan lortzen, besteak beste.

Laguntzak kudeatzeko zerbitzua

Laguntzak kudeatzeko zerbitzuak Baikaba zentroko familien eta Hiranka zentrorako joaten direnen egoera ekonomikoa aztertzen du. Zerbitzu honek badu haurrei laguntzeko programa bat, eskolako materiala, haurrentzako elikagaiak eta higiene-produktuak, betaurrekoak eta audiofonoak erosi ahal izateko. Zerbitzu honek familiei eta pertsona helduei ere laguntzen die elikagaiak, higiene-produktuak eta arropa emanez, baita alokairua ordaintzeko edo etxerako gauzetarako laguntzekin ere. Laguntza horiek erakundean beren lan-plangintza betetzen dutenei eta egoera ekonomikoki larrian daudenei ematen zaizkie, erakundean bertan hasi duten prozesua errazteko helburuarekin.



Sentsibilizazio-programak

Sentsibilizazio-programen bidez, erantzunkidetasuna, elkartasuna eta errespetua hedaturik eta pentsaera kritikoan hezten saiatuz, inguratzen gaituen gizarteari beste begirada batez begiratzea nahi dugu.

Informazioa zabaldu eta mobilizatzeko deia egiten dugu sare sozialen (Twitter eta Facebook), buletinen eta iragarki-aula digitalen bidez, besteak beste. Ikastetxeetan, oinarritzko eskubideak lortzeko borrokari buruzko esperientzia azaltzen dugu, beren borondatez gizarteratze-tailerretan parte hartzen dutenen bidez. Eta, jolasaren bitartez, gozatu egiten dugu haur-heziketako tailerrak eginez, non kultura-aniztasuna lantzen dugun eta gure plan-teamenduak hobetzen ditugun kulturartekotasuna eta genero-ikuspegia erantsita.



Nazioarteko Lankidetzaz



Gizarte global baten parte sentitzen gara, eta, horregatik, lanean jarraitzen dugu heziketa bera prozesu bat dela erabat sinetsita, eta jakinik gure eguneroko jardueretan giza eskubideen, kulturartekotasunaren, generoaren eta iraunkortasunaren ikuspegia eranstea dela garrantzitsua. Horretarako, ebaluazio-tresnak atondu ditugu, erakundeetan egiten ditugun jardueretan ikuspegi horien aplikazioan zer hobetu daitekeen ikusteko. Proye-Proega fundazioaren sentsibilizazio-kanpainak babesten ditugu, eta Afrikan eta Latinoamerikan udaldirako antolatzen duen nazioarteko boluntario-lana ere sustatzen dugu.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta Hogar Padre Lerchundiren (Proclade) proiektuaren bidez, haur eta nerabeen eskolatzeko eta gizarte- eta hezkuntza-garapena babesten dugu Tangerren. Haur horiek eskola-laguntzako, aisialdiko eta denbora libreko jardueretan eta kanpalekuetan parte hartzen dute, eta, eskolarekin koordinatuta, laguntza eskaintzen zaie. Familiarekin batera, jarraipen bat egiten dugu, lanbiderako aholkularitzaren, familiako heziketa-tailerren eta oinarritzako eskubideen defentsaren bitartez.

Elkarbanatuz elkartearen 2013-2016 Plan Estrategikoaren erronketako bat izan dena lantzen jarraitu dugu, hau da, gizarte- eta hezkuntza-arloko eta garapeneko proiektuak babestu ditugu; zehazki, gure proiektuekin lotura duten haurrek eta gazteek pairatzen dituzten injustizia-egoerak aldatzeko lan egiten duten proiektuak.

Erronka estrategiko horren barruan zehaztutako helburuei dagokienez, erakundeko lau kide, bakoitza lantalde batekoa, Marokoko iparraldera joan ginen gizarte- eta hezkuntza-arloko eta garapeneko proiektuetan lan egiten duten elkarten lana ezagutzera.

Gure eskerrik beroena eman nahi diegu harrera egin ziguten elkarteetako pertsonari, lan eskerga egiten baitute eta horren berri eman baitziguten. Hauek dira elkarte horiek: Chifae, Ajial, 100% Mamás, Manos Solidarias (Tetuan) ADL (Xauen) eta Al Karama. Beni



Makada barrutiko kontseilu berrikoek ere hartu gintuzten; elkarteentzat dituzten baliabideak eta tokiak erakutsi zizkiguten eta martxan jarri dituzten partaidetza-prozesu berriak azaldu zizkiguten.

Hogar Padre Lerchundiren gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektuaren eguneroko dinamika ezagutu genuen bertatik bertara; izan ere, haien etxean egon ginen gure bisitak iraun zuen denboran.

Lanbide-arloko truke horiek lagungarriak zaizkigu, gure laguntza jasotzen duten pertsona askoren kultura eta errealitatea hobeto ezagutzeko eta elkarten arteko ezagutza trukatzeko.



Elkarbanatuz Elkartearen XI. Jardunaldiak

Azken jardunaldiak gogoetarako eta nerabeen laguntzan ditugun esperimentzen berri izateko gune bat izan dira, eta kultura-identitatearen osaketa eta bilakaera baldintzatzen duten faktoreetan sakondu dugu.

Honako aditu hauek izan ziren jardunaldietan: Rosa Aparicio, Soziologiako katedraduna eta Ortega y Gasset Unibertsitate Institutuko ikertzailea; Andrea Ruiz Balzola, Antropologiako doktore, irakasle eta ikertzailea, eta Marian Becerro, mediku eta psikoterapeuta. Apariciok kultura-identitatearen garrantziaz hitz egin zigun, Ruiz Balzolak kulturarteko hezkuntzari buruz pentsarazi zigun eta Becerrok Bakaiba zentroan psikodramaren bidez nerabeekin egiten den lana aurkeztu zigun.

Boluntarioak

Boluntarioek, proiektuetan lan egiteko eskaintzen diegun aukeraren bidez, gizartean gertatzen denarekin konprometiturik daudela eta erantzunkide direla adierazten digute. Gertutasuna, maitasuna eta poztasuna eskainiz eta jendeari entzunez, gizartea aldatzen laguntzen dute, eta zenbait gizatalderen presentzia ikusarazten eta haien gizarteratzea errazten dute.

2016an, proiektuak boluntarioen ikuspuntutik ebaluatu ditugu, eta komunikatzeko bideak hobetzen saiatu gara, beren boluntario-lanen aldean desberdinak diren beste jardueramota batzuetan parte har dezaten.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu gure proiektuetan parte hartu duten guztiei, haiek aberastu eta hobetzeko ideiak ekarri dituztenei. Eskerrak parte hartuz beren laguntzaren eragina areagotzen duten guztiei.

Jardunaldi hauetan parte hartu dugu

- "Haurren kontrako indarkeria ezin da onartu" izeneko jardunaldia. Save the Children.
- "Nerabezaroa. Aukerako garaia" jardunaldia. Izan fundazioa. Norbera.
- Boluntariotzaren erronkei buruzko lan-saioa. Eusko Jaurlaritza.
- Jardunaldiak: "Lagunduz. Harreman eraldatzaileak osatuz". 3. sektorearen behatokia.
- "Bizkaiko txirotasunari eta gizarte-bazterketari buruzko 2016ko txostenaren egiaztapena" Bizkaiko Foru Aldundia eta EAPN.
- "Genero-indarkeriaren kontrako babes-neurriak". Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritartasun Gaietarako Saila.
- "Gizarte-bazterketa eta buruko patologia larria: ezinbesteko gizarte- eta osasun-lankidetzeta". Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Saila.
- "Indarkeria-egoeretan aukerak asmatuz XXI. mendean: Nerabeak, emakumeak eta familia". Berriztu elkarte.
- Jardunaldia: "Gizarte-bazterketa eta buruko patologia larria". Bizkaiko Foru Aldundia.



Parte-hartze komunitarioa eta sareko lantaldeak

- BesteBi plataformaren kale-ageraldiak: etxegabeen duintasuna aldarrikatzeko ekintzetan parte hartu dugu.
- "Zurumurrurik ez" Bilboko Udalak sustatutako estrategiari buruzko prestakuntza-saioak.
- EAPN sareko haurrei buruzko batzordea: lantaldea eta prestakuntza haurrekin eta familiarekin esku hartzeko ereduari buruz.
- Harresiak Apurtuz koordinakundearen lurralde-batzordeak eta batzar nagusiak.
- EAPN partaidetza-batzordea: lagundu zaien pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteratze-sistemari buruz dituzten iritzia eta proposamenak jaso-tzen ditugu, eta Euskadiko Partaidetzari buruzko III. Jardunaldietan parte hartu dugu.
- Erasmus + proiektua: proiektu honekin, gazteak kezkatzen dituzten gaiak lan-tzen ditugu, eta erakunde eta administrazio publikoen eta gazte-kontseiluen arteko elkarriketak sustatzen.
- Bilboko Gizarte Zerbitzuen Udal Kontseilua (lanaren, haurren eta familien gaiak lantzeko batzordea eta etxegabeen gaiak lantzeko batzordea).
- "Emakumeak eta gizarte-bazterketa" EAPN lan-batzordea.
- Harresiak Apurtuz koordinakundearen gazteekin lan egiteko batzordea.
- FEPArekin lan egin dugu "Breakers FAB Lab" proiektuan.
- Gizardatz elkartearen lantaldeak, "gizarte-zerbitzuetan gizarte-ekimenek zer betekizun duten zehazteko".



Jarraipen ekonomikoaren eta administrazioaren arloa

Jarraipen ekonomikoaren zerbitzua

Kudeaketa-estilo etiko eta arduratsu baten alde egiten dugu lan, bai eta egoera ekonomiko eta finantzario orekatu baten alde ere.

Administrazio-zerbitzua

Gure administrazio-kudeaketari esker, eraginkortasunez antolatzen ditugu baliabide materialak, bai eta elkartearen kanpoko zerbitzuen baliabideak ere, elkartearen misioarekin bat datozenak. Halaber, administrazio-zerbitzuak hau egiten du:

Kontsumo arduratsua eta baliabide materialak aurreztu daitezela sustatzen eta bultzatzen du; horretarako, ingurumen-irizpideak hartzen ditu kontuan.

Berdintasun Plana

Saila, ekitate-taldearekin batera, Berdintasun Planaren helburu eta ekintzen garapena dinamizatzen ari da. Plan hori 2012an eta 2013an egindako diagnostikotik eta Elkarbanatuz elkartek esparru horretan egindako ibilbidetik sortu da. Plana modu parte-hartzailean egin zen. Lau urteko iraupena du (2015–2018) eta erakunde berdintasun-printzipioa txertatzen eta genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna ezartzen lagundu nahi du, erakunde barnean nahiz erabiltzaileekin egindako esku-hartzeetan.


Plana aurrera eraman dugu bigarren urtez, eta emaitza positiboa izan da. 15 ekintzatik 12 gauzatu dira, eta 3 garapen-prozesuan daude. Bestalde, areagotzen ari da langile guztiek planean duten inplikazioa, eta gero eta gehiago ari dira haren edukiaz jabetzen.

Kalitate-programa

Arloa orobat arduratzen da elkartearen kalitate-programa kudeatzeaz.

- Prozesuen mapa baliatzen du.
- Jarduna bideratzen du, etengabe hobetzeko.

16 kalitate-prozesu ari gara garatzen progresiboki:



Kostu Errealaren Finantziazio-Iturriak

Datu horiek osatze aldera, kostu errealaren finantziazio-iturriak zein diren zehaztuko dugu, eta finantziazio-iturri horiek 2016an kostu errealaren zer ehuneko finantzatu duten adieraziko.



Kontu-Ikuskapenak

Elkarbanatuz elkarteak kontu-ikuskapenak egiten ditu, aldian-aldian egin ere, zenbait alderdi ebaluatzeko; hain zuzen ere, gizarte-eraginarekin, kontabilitate-kudeaketarekin eta elkartearen kudeaketan balio jakin batzuk integratzearekin lotutako alderdiak ebaluatzeko.

Ebaluazio- mekanismo horiek bide ematen dute etengabe hobetzeko prozesuak garatzeko eta ezartzeko; eta, horretaz gainera, tresna apartak dira elkarte-proiektua serioa eta sendoa dela bermatzeko.

Kontu-Ikuskapen Ekonomikoa:

eta aholkulariek urteko kontuen ikuskapena egin dute, eta egiaztatu dute kontu horiek zehatz-mehatz adierazten dutela elkartearen finantza-egoera.

Kontu-Ikuskapen Soziala:

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) eginiko kontu-ikuskapen sozialari esker, 2016an, gure elkartearen eraginkortasun soziala eta helburuekiko jokabide etikoa ebaluatu ditugu, gizarteari eta elkartasunari begira lortutako emaitza hobetzeko asmoz.

Batzorde Etikoa Txostena:

Elkarbanatuz elkarteko Etika Batzordeak txosten bat egiten du urtero, eta, txosten horretan, Etika Kodea zenbateraino sartzen den elkartean ebaluatzen.



Urteko Kontuak

Elkartearen 2016ko urteko kontuak aurkeztuko ditugu. Horiek egiteko, indarrean dauden kontabilitate- printzipioak eta -arauak aplikatu ditugu. Bilakaera hobeto ulertzeko, 2015ko eta 2016ko ekitaldietako zifrak erakutsiko ditugu.

EGOERA-BALANTZEA 2016ko abenduaren 31n (eurotan emanda)

AKTIBOA	2016	2015
A) AKTIBO EZ ARRUNTA	255.666,47	64.667,29
I. IBILGETU UKIEZINA	0,00	0,00
Aplikazio informatikoak	2.060,93	2.060,93
Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua	-2.060,93	-2.060,93
III. IBILGETU MATERIALA	243.915,92	49.686,74
Eraikuntzak	211.711,89	
Makineria	6.115,37	6.115,37
Bestelako instalazioak	12.497,60	12.497,60
Altzariak	64.091,87	63.421,18
Informazio-prozesuetarako ekipoa	46.332,70	44.219,12
Eraikinetako inbertsioak	43.116,27	42.575,40
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	-139.949,78	-119.141,93
VI. EPE LUZERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK	11.750,55	14.980,55
Epe luzerako finantza-inbertsioak	6.438,00	6.438,00
Epe luzerako fidantzak	5.312,55	8.542,55
B) AKTIBO ARRUNTA	272.699,36	204.042,89
II. JARDUERAREN ERABILTZAILEAK ETA ZORDUNAK	46.016,76	58.597,76
Jardueraren beraren erabiltzaileak	46.016,76	58.597,76
III. MERKATARITZA-ZORDUNAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTUAK	178.541,72	120.349,63
Administrazio Publikoak	178.541,72	120.349,63
VI. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK	2.387,11	2.226,28
Aurrez ordaindutako gastuak	2.387,11	2.226,28
VII. EFEKTIBOA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK	45.753,77	22.869,22
Kutxak	2.844,82	3.229,36
Bankuak eta Kreditu Erakundeak	42.908,95	19.639,86
AKTIBOA, GUZTIRA	528.365,83	268.710,18

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2016	2015
A) ONDARE GARBIA	127.932,49	75.973,05
A-1) FUNTS PROPIOAK	127.932,49	75.973,05
II. ERRESERBAK	-15.304,25	-15.304,25
Borondatezko erreserbak	-15.304,25	-15.304,25
III. AURREKO EKITALDIEN EMAITZAK	91.277,30	90.723,98
Soberakina	91.277,30	90.723,98
IV. EKITALDIAREN SOBERAKINA	51.959,44	553,32
Ekitaldiaren emaitza	51.959,44	553,32
B) PASIBO EZ ARRUNTA	223.990,68	
II. EPE LUZERAKO ZORRAK	223.990,68	
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	185.990,68	
3. Epe luzerako beste zor batzuk	38.000,00	
C) PASIBO ARRUNTA	176.442,66	192.737,13
II. EPE LABURRERAKO ZORRAK	86.183,01	119.000,00
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	86.183,01	34.000,00
3. Epe laburrerako beste zor batzuk	0,00	85.000,00
V. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINTZEKO BESTE KONTU BATZUK	65.081,08	65.737,13
1. Hornitzaileak	8.930,45	6.906,70
2. Beste hartzekodun batzuk	56.150,63	58.830,43
Ordaindu gabeko ordainsariak	0,02	4.428,64
Herri-ogasuna, hartzekoduna atxikipengatik	30.735,20	29.497,77
Gizarte -segurantzaren erakundeak, hartzekodunak	25.415,41	24.904,02
VI. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK	25.178,57	8.000,00
Sarrera aurreratua	25.178,57	8.000,00
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	528.365,83	268.710,18

GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2016ko abenduaren 31n (eurotan emanda)

	2016	2015
A) EKITALDIAREN SOBERAKINA		
1. Erakundearen diru-sarrerak jarduera propioagatik	486.992,86	445.494,93
a) Bazkide eta afiliatuen kuotak	105.340,40	63.677,40
b) Eraibiltzaileen ekarpenak	26.694,63	36.431,68
c) Promozio, babesle eta laguntzengatik sarrerak	23.715,05	12.976,20
c) Ekitaldiari egotzitako diru-laguntzak, emaitzak eta legatuak	331.242,78	332.409,65
2. Salmentak eta beste diru-sarrerak jarduera	995.249,01	978.845,36
3. Laguntzengatik gastuak eta beste batzuk	-10.545,27	-11.139,29
a) Laguntza monetarioak	-10.545,27	-11.139,29
4. Izakinen aldatetarak		
5. Lan horren aktiboa entitateak egindako		
6. Hornikuntzak		
7. Erakundearen jardueragatik beste sarrera batzuk	4.671,13	2.330,04
8. Langile-gastuak	-1.087.961,37	-1.075.819,17
9. Jardueraren beste gastu batzuk	-312.594,84	-315.824,76
10. Ibilgetuaren amortizazioa	-20.807,85	-20.285,87
13. Hondatzea eta ibilgetuak besterentzearen emaitza	0,00	-119,60
A-1) JARDUERA PROPIOAREN SOBERAKINA	55.003,67	3.481,64
14. Finantza-sarrerak		
15. Finantza-gastuak	-3.044,23	-2.928,32
17. Kanbio-diferentziak		
A-2) FINANTZA-SOBERAKINA	-3.044,23	-2.928,32
A-3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA	51.959,44	553,32
18. Etekinen gaineko zerga	0,00	0,00
A-4) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAREN SOBERAKINENA	0,00	0,00
B) ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO SARRERAK ETA GASTUAK		
1. Jasotako diru-laguntza publikoak	115.190,72	110.445,01
2. Jasotako diru-laguntza pribatuak	207.603,91	218.157,17
B-1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE GARBIA ZUZENEAN AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK	322.794,63	328.602,18
C) EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATUAK		
1. Jasotako diru-laguntza publikoak	-115.190,72	-110.445,01
2. Jasotako diru-laguntza pribatuak	-207.603,91	-218.157,17
C-1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATZEAGATIK	-322.794,63	-328.602,18
D) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ZUZENEAN ONDARE GARBIARI EGOTZITAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK	0,00	0,00
E) IRIZPIDE-ALDAKETENGATIK EGINDAKO DOIKUNTZAK		
F) ERROREENGATIKO DOIKUNTZAK		
H) BESTE ALDAKETA BATZUK		
I) ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN GUZTIZKO EMAITZA EKITALDIAN	51.959,44	553,32

Proiektuen KOSTU ERREALA eta gastu orokorrak:

Elkartearen kostu ekonomikoa "kostu erreala" baino pixka bat baxuagoa da, honako arrazoi hauek direla eta:

- Bi etxebizitzaren lagapena doan, egoitzetako esku-hartzearen arloko proiektuak egiteko.
- Bizkaiko Elikagai Bankuak emandako elikagaiak.
- Langileak. Izan ere, kontuan hartu behar dugu boluntarioek onginaldi hutsez egindako lana.

Boluntarioei eta diruzkoak ez diren ekarpenei dagozkien kostuen gorakada

Errentamenduak eta kanonak ⁽¹⁾	21.600,00
Janaria, garbiketa-tresnak eta bestelakoak ⁽²⁾	277,18
Langile-gastuak ⁽³⁾	1.560,00
GUZTIRA	23.437,18

(1) Bi etxeren hileko alokairua, gutxi gorabehera, 1.800 € litzateke.

(2) 586 kilo elikagai jaso dira Bizkaiko Elikagaien Bankutik; jasotakoaren balioa 277,18 € inguru da.

(3) 110 ordu urtean, gutxi gorabehera 1.560 euroren balioa dutenak.

Lankidetzak-Sareak

Sarean lan egiten dugu, hirugarren sektoreko entitateen elkarlana sustatuz eta helburu komunak lortzeko informazio-fluxu aberasgarria bultzatuz. Horregatik, parte hartzen jarraitzen dugu kide garen sare hauen zuzendaritza-batzordeetan, lantaldeetan, batzarretan, kanpainetan, ekimenetan eta abarretan:



La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Sarea



Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkartea



Danok Bizilekua Izatearen eta Aterpe bakoien aldeko Plataforma



Etorkinei laguntza emateko Euskadiko GKE-en koordinakundea



Ekain Sarea - Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak



Ekonomia Alternatiboaren eta Solidarioaren Sarea



Proiektuak eta laguntzako etxebizitzak dituzten entitateen federazioa



Zero Pobrezia Kanpaina



Fiare Proiektuari Laguntzeko Euskal Sarea



Komunikatzeko Bideak

www.elkarbanatuz.org



QR kodea:



Jarrai iezaguzu sare sozialetan:




<http://www.facebook.com/elkarbanatuz>



@elkarbanatuz



<http://www.youtube.com/user/elkarbanatuz>



Ohar-taula digitala:

Bazkideentzat eta langileentzat:



La Salle ARLEP barrutia:



Aldizkari elektronikoak:



Halaber, egin bat gurekin gizarte-mobilizazioaren bidez:



Izan Gure Laguntzaile

Boluntariotza

Erakundeari laguntzeko modu asko daude, eta horietako bat boluntario izatea da. Elkarbanatuzen hainbat proiektutan lagun dezakezu eta, besteak beste, hezkuntza-ekintzetan, aisiakoetan, bizikidetzakoetan, laguntza pertsonalekoetan eta enplegurako prestakuntzakoetan babes gaitzakezu.

Egin ekarpen bat

Dohaintza bat

Gure lana egiteko, tresna batzuk behar ditugu (ekipamendua, altzariak, hainbat gauza...), erabiltzeko moduan daudenak. Baliteke zuk soberan duzun hori izatea guk une honetan gure proiektuetako batean behar duguna. Hala den jakiteko, mesedez, jo ezazu guregana.

Etxebizitza edo lokal baten erabilera uztea

Ba al duzu hutsik dagoen lokal, bulego edo etxebizitzaren bat? Haren erabilera uzten badiguzu, laguntza itzela emango diguzu gure misioa betetzeko, erabiltzaile gehiagori arreta emateko aukera emango baitiguzu.

Gure proiektuetarako laguntza ekonomikoa

Aldiroko ekarpen ekonomikoak egiten dizkigute gure laguntzaileetako batzuek, eta, ekarpen horien bidez, premiazkoa duten egonkortasuna ematen diete gure proiektuei. Ekarpen ekonomiko puntualak egitea da gure jardueri laguntzeko beste aukera bat.

Interesatuak honela jaso dezakete informazioa

- Gure webgunearen bitartez eta kontaktuetaarako formularioez: www.elkarbanatuz.org
- E-mail bidez: voluntariado@elkarbanatuz.org edo/eta colabora@elkarbanatuz.org
- Telefonoz: **94 475 76 13**

